

## Beso artifizialak, haragizkotik gertuago

*Science Translational Medicine* aldizkarian argitaratutako bi ikerketak beso artifizialetan egin diren aurrerapenen berri ematen dute. Ikerketa bakoitzak alderdi bat garatu du: besoa askatasun handiagoz kontrolatzea, batak, eta

eskuetako ukimenaren antzerako sententzioak izatea, besteak.

Lehenengo ikerketan beso artifiziala zuzenean besondoko hezurriari, muskuluei eta nerbioei konektatu diete. Protesia osteointegratua da, eta eramalearen eskeletuarekin bat egiten du.

Emaitza: mugimenduak modu naturalagoan egiten ditu protesiaren eramaleak kontrol handiagoa duelako.

Bigarren ikerketan nerbioen konexioetan jarri dute enfasia. Besoa ukalondoaren gainetik moztuta zuten bi gizonezkori ebakuntza eginda, elektrodoak lotu zizkieten besondoko azalaren azpiko nerbioei. Besoa trebatzeko, hatzamarretan kokatutako sentsore batzuen bitartez intentsitate desberdinetako pulsu elektrikoak jasotzen zituzten, eta, urte beteren ondoren, ukimen naturalaren antzeko sententzioak di-tuztela esan daiteke. Horri esker, besoa bereago sentitzen dute, eta ataza finagoak egiteko gai dira; hala nola, fruta bati haziak kendu fruta birrindu gabe. ●



ARG. TYLER LAB, CLEVELAND VA MEDICAL CENTER.

## etorkizuna.eu

±18 Presta Ezazu Zure Etorkizuna  
aldizkariaren web orrialdea

Hezkuntza  
Gazteria  
Giza Eskubideak  
Eta askoz gehiago...

